

LEZO / Andreone Udal liburutegiak 236 bazkide berri jaso ditu 2006an.

Iaz 1.491 liburu, 24 CD eta 186 bidea berri sartu ziren liburutegian

I. Muguruza

Udalak jakitera eman du iaz 236 bazkide berri jaso zituela. Horrez gain, azpimarratu du erabiltzaileentzako eskuragarri izaten diren titulu kopuruek ere gora egin dutela, hala nola, 1.491 liburu berri, 24 CD, 186 bideo eta 18 ordenagailu-fitxategi sartu ziren. Dena den, 46 titulu atera zituzten liburutegitik.

Udalak 19.000 euroko partida eman zuen liburu, CD eta bideoen erosketa finantzatzeko. Aipatutako diru kopurutik, 4.037,39 euro Eusko Jaurlaritzak jarri zituen, liburuak berritzeko duen programarengatik.

Era berean, zenbait erakundek eta norbanakoek liburutegiaren bildumako titulu kopurua areagotzeko laguntza eskaini dutela adierazi du Udalak. Kultura Ministerioak, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxak eta herriko biztanleek lagundu dutela zehaztu du: Laguntza horien artean, Agustina Pontestak emandako Orixeren Lezoko Gurutze Doitsuari euskal-ereserkia liburu nabarmen da, 1919. urtean argitaratua.

Mailegu kudeaketa

Udal liburutegiak 8.050 mailegu kudeatu ditu orotara, esan du Udalak, 361 CD, 2.672 bideo, eta heldu, gazte eta haur literaturako 5.016 liburu. Horrez gain, liburutegiko irakurketa aretoa 7.119 lagunek erabili zutela nabarmendu du